

ASTEARTEA

HARRERA MOMENTUKO EMOZIOAK

Gertutasunaren Jauna

Hurbildu, mugagabearen eta mugatuaren arteko amildegia zubi eginez.

Denboran sartzeko eternitatea utziz.

Egin zaitez gurea gu zurekin bat egiteko.

Eta horrela, hezur-haragiz, gizateria zertan datzan erakusten hasten zaigu.

Hurbiltasunaren Jainkoa zara, barnean daudenen, aurkitutakoen, zuretzako ez baita inor galtzen adiskidetzen direnengandik,

okerrarena, lotsatuarena, zaurituarena, sendatuarena.

Itxaropenik gabekoen, larrituen, bisitatuen, ikaratuen, mehatxatuen, atsekabetuaren, gogoratuaren Jauna zara, zuretzako ez baita inor ahazten.

Hain hurbil orain, beraz, gurekin, Jainkoa.

José María Rodríguez Olaizola, sj



OTOITZERAKO DINAMIKA

Sentitu al duzu inoiz norbait berezia berezia etorriko dela jakitearen poza? Imajinatu etxea prestatzen duzula aspaldi ikusi ez duzun senitarteko batentzat, edo asteburua pasatzera datorren eskolako lagun batentzat, baita Gabonetako Jesus Haurrarenentzat ere. Nola aldatzen da dena? Zer sentitzen duzu momentu horietan? Pentsatu nola antolatzen eta garbitzen dugun etxea. Zelan sentitzen zara maite duzun norbait iristear dagoela jakitean? Urduri, pozik, hunkituta?

OTOITZA ABERASTEKO MATERIALA:



Hitzaren argitan **ABENDUALDIA**



MigraGesto 2023





ASTEARTEA

HARRERA MOMENTUKO
EMOZIOAK

Lc 1, 39-45

Egun haietan, Maria jaiki eta presaka abiatu zen mendirantz, Judako hiri batera; Zakariasen etxean sartu eta Elisabet agurtu zuen. Gertatu zen Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, bere sabelean zegoen haurra salto egin zuela. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen eta ahotsa altxatuz, oihukatu zuen: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni nere Jaunaren amak bisitan nazadan? Bada, zure agurra nire belarrietara heldu bezain laster, umeak pozez salto egin zuen nire sabelean. Zorionekoa sinistu duena, Jaunak esandakoa beteko baita.

